



ELÍAS  
QUEREJETA  
ZINE  
ESKOLA



Nortasun korporatiboaren  
eskuliburua

# SARRERA

Nortasun korporatiboko eskuliburu honek Elías Querejeta Zine Eskola (EQZE) identifikatzen duen markaren bertsio nagusia aurkezten du, eta marka hori behar bezala ezartzeko kontuan hartu eta jarraitu beharreko arauak jasotzen ditu.

EQZE marka da zentroaren nortasun grafikoaren elementu nagusia. Funtsezkoa da EQZE marka behar bezala erabiltzea, haren irudia eta zentroan garatzen den beste proiektu guztiak behar bezala komunikatzeko, identifikatzeko eta ezagutzeko.


Marka zorrotz aplikatzeak eta arduraz zaintzeak izango du eraginik zentroa sendotzeari eta finkatzeari begira, eta, epe ertain eta luzera, haren oihartzunean eta arrakastan ere bai.

Markaren osaera	3
Markaren erabilera	5
Markaren kokalekua	7
Filmak	8
Digitalizazioak eta zaharberritzeak	10
Bestelako ikus-entzunezko ekoizpen batzuk	12
Argitalpenak	14
Zikloak eta programak	15
Instalazioak eta erakusketak	16
Webguneak eta euskarri digitalak	17
Ikasleek antolatutako jarduerak	18
Marka nagusia	19
Koloreak	20
Hondo iluna	21
Kolore bakarreko bertsioa	22
Kolore hondoak	23
Marka murriztea eta ezarritako gutxieneoak	24
Segurtasun-eremua	25
Erabilera okerrak	26
Proiektuko gainerako erakundeen markekin batera agertzea	27
Beste marka batzuekin agertzea	28
Markaren presentzia testuetan	29
Erabilera okerrak	31
Hizkuntza-politika	32
Hizkera inklusiboarekiko konpromisoa	33

# MARKAREN OSAERA

Gaur egun, hiru elementuk osatzen dute EQZE marka: zentroaren sinboloak, logotipoak eta zentroa finantzatzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren sinboloak (armarria), zentroa finantzatzen duen erakundea. Azken elementu horrek GFaren departamentuetako zerbitzuak identifikatzen ditu.

Hurrengo orrialdeetan jasota dagoen moduan, aldaezina da markaren antolaera, bai eta hura osatzen duten elementuen proportzioen arteko erlazioa ere.



Sinboloa



ELÍAS  
QUEREJETA  
**ZINE  
ESKOLA**

Logotipoa



GFaren armarria

## MARKAREN OSAERA

Zentroaren markaren bertsio baimendua. Badira beste batzuk ere, Gipuzkoako Foru Aldundia identifikatzen duen armarririk gabeak. Baina eskuliburu honek indarra hartu ondotik, ez dira normatiboak.



# MARKAREN ERABILERA

## PRINTZIPIO OROKORRAK

Egileek EQZE marka beren lan guztietan jartzeko betebeharra dute, edozein direla ere haien tipologia eta formatua eta edozein testuingurutan aurkezten direla ere. Barne hartzen dira:

- 1. Garapen-faseko proiektuak eta amaitutako lanak.**
- 2. Eskolako jardueren testuinguruko aurkezpenak: ikerketa-mintegiak, Akelarreak, bateratze-lanak eta Hipotesiak (master amaierako lanak).**
- 3. Aurkezpen publikoak eta kanpo-aurkezpenak: emanaldiak, aurkezpenak garapen-laboregietan, biltzarrak, etab.**

Obrari lotutako offlineko eta onlineko euskarri guztietan jarri beharko da EQZE marka. Beraz, euskarri hauetan jarri beharko da:

- 1. Material propioak: posterrak, horma-irudiak, postalak, flyerak, sustapen-materiala, etab.**
- 2. Hirugarrenen euskarriak: obrak parte hartzen duen jaialdi, mintegi, topagune eta hitzaldien katalogoak, eskuko programak, sare sozialak eta webguneak.**

Ezin denean marka zuzenean adierazi, informazio hori idatziz jaso beharko da beste atal batzuetan; adibidez, sinopsian, jardueraren azalpenean edo fitxa teknikoan.

Helburua da obra eskolako testuinguruan eta haren baliabide tekniko eta materialak eta giza baliabideak erabiliz egin dela jasotzea.

# MARKAREN ERABILERA

## ARAUAREN IRISMENA

Lan pertsonalei eta taldekakoei aplikatzen zaie araua, baita eskolan egindako edozein jarduerari ere. Zentrotik kanpoko eragileak obren ekoizpenean sartzeak edo parte hartzeak ez du salbuesten konpromiso horretatik.

## ERABILERA MURRIZTUA ETA BAIMENA

Elías Querejeta Zine Eskolaren marka zentroko jarduerekin loturik garatu eta egindako proiektu eta ekoizpenetarako bakarrik erabiliko da. Bestelako erabilera orok EQZEren onospena izan beharko du aplikatu aurretik.

## MARKAREN ERREPRODUKZIOA

Kasu guztietan, bai eta marka modu artistikoan aurkezten denean ere, zentroaren logo ofiziala EQZEren webgune ofizialean (Komunikazio Sailean) edo zuzenean [esteka honetan](#) deskargatu daitezkeen fitxategi originaletan oinarrituta erreproduzitu beharko da.

# MARKAREN KOKALEKUA

Hurrengo atalean, markaren kokalekuari buruzko jarraibideak zehazten dira, EQZEn garatutako ikerketa-lan edo -proiektuen ondorioz eginiko proiektu-mota nagusietan non ipini definitze aldera.

Markaren erabilera ez dago mota horretako ekoizpenetara mugatuta, eta zentroan egindako edozein obratarara hedatzen da.

Filmak

Digitalizazioak eta zaharberritzeak

Bestelako ikus-entzunezko ekoizpen batzuk

Argitalpenak

Zikloak eta programak

Instalazioak eta erakusketak

Webguneak eta euskarri digitalak

Ikasleek antolatutako jarduerak

## MARKAREN KOKALEKUA: FILMAK

### HASIERAKO KREDITUAK

EQZEn markak obraren hasieran agertu behar du, ondoan beste markarik gabe. Pantailan bistaratu beharko du gutxienez lau segundoz, kolore lauko atzealde baten (zuria edo beltza) gainean.

Beste marka batzuekiko kokapen espezifikoak kasuz kasu adostuko den arren, oro har, EQZEn marka lehen posizioan agertuko da, elkarren segidan agertuko diren beste marka batzuk ere badaudenean.



## MARKAREN KOKALEKUA: FILMAK

### AMAIERAKO KREDITUAK

Amaierako kredituetan, ohar hau jaso beharko da: "Film hau Elías Querejeta Zine Eskolan garatu da". Aipamen hori eskolaren markarekin batera agertuko da, beste batzuk ere baldin badaude. Hala bada, EQZ Eren markak ere lehentasunezko posizioa izango du.

Filma materialki eskolako laborategi fotokimikoetan eta/edo postprodukzioko aretoan garatu bada, horren berri jaso beharko da amaierako kredituetan. Honela egin beharko da: Elías Querejeta Zine Eskolaren laborategiak.

Aipamen horren azpian, ekoizpenean parte hartu duten eskolako sail teknikoko arduradunek agertu beharko dute eta, ondoren, parte hartu duten ikasle eta/edo alumniak egin duten lana adieraziko da, identifikatzen direnean.

Film hau Elías Querejeta Zine Eskolan  
garatu da



Elías Querejeta Zine Eskolaren laborategiak

**Aholkularitza teknikoa:**  
Asier Armental, Cris Neira

**Eskaneatzea:**  
Laura Ibáñez López

**Irudiaren tratamendu digitala:**  
Amanda Soares, Andrés Martínez de la Viña,  
Jorge Jaramillo, Luis Juárez Pineda,  
Pablo Retuerta

## MARKAREN KOKALEKUA: DIGITALIZAZIOAK ETA ZAHARBERRITZEAK

### HASIERAKO KREDITUAK

EQZEren markak hasierako kartelan agertu behar du, eskolan egindako lanaren azalpen teknikoaren gainean. Testu horretan, zehaztu beharko da zer testuingurutan (ikerketa-proiektua edo ekintza, masterraren amaierako lana...) digitalizatu edo zaharberritu den obra; testua kartela batean edo zenbait kartelatan banatuta bistaratu ahal izango da, luzeraren arabera.

Erraz irakurtzeko aukera ematen duen denbora-tarte batez mantendu beharko da kartela (edo kartelak) pantailan.

Beste erakunde batzuen markak erakutsi behar direnean, eskolaren markak kokapenean gailendu beharko du; hala ere, arau hori kasuan kasu adostuko da.



Film hauen digitalizazioa Elías Querejeta Zine Eskolan (EQZE) egin da  
"Bigarren eskukoa. Berrerabilera eta desbideratzeak zinemagintza iberoamerikarrean"  
proiektuaren esparruan Cinemateca de Cubarekin elkarlanean.

La digitalización de estas películas ha sido realizada en Elías Querejeta Zine Eskola (EQZE)  
en el marco del proyecto "Segunda mano. Reutilización y desvíos en el cine iberoamericano"  
en colaboración con la Cinemateca de Cuba.



## MARKAREN KOKALEKUA: DIGITALIZAZIOAK ETA ZAHARBERRITZEAK

### AMAIERAKO KREDITUAK

Amaierako kredituetan, ohar hau jaso beharko da: "Obra hau Elías Querejeta Zine Eskolan zaharberritu/digitalizatu da". Aipamen hori eskolaren markarekin batera agertuko da, beste batzuk ere baldin badaude. Kasu horretan ere, EQZEren markak lehentasunezko posizioa izango du.

Filma materialki eskolako laborategi fotokimikoetan eta/edo postprodukzioko aretoan garatu bada, horren berri jaso beharko da kredituetan, lanaren luzera edozein dela ere. Honela egin beharko da: Elías Querejeta Zine Eskolaren laborategiak.

Aipamen horren azpian, ekoizpenean parte hartu duten eskolako sail teknikoko arduradunek agertu beharko dute eta, ondoren, parte hartu duten ikasle eta/edo alumniak egin duten lana adieraziko da, identifikatzen direnean.

Obra hau Elías Querejeta Zine Eskolan  
zaharberritu/digitalizatu da



Elías Querejeta Zine Eskola Laborategiak

**Aholkularitza teknikoa:**  
Asier Armental, Cris Neira

**Ikerketa:**  
Luis Alberto Juárez Pineda, Inés Toharía

**Irudiaren zaharberritze digitala:**  
Luis Alberto Juárez Pineda

**Irudi garbiketa digitalerako laguntza:**  
Jorge Jaramillo, Andrés Martínez de la Viña, Pablo Retuerta, Amanda Soares

**Kolore zuzenketa:**  
Edgar Flores Ogarrio, CSI, CAM (Anónima Post)

**Kolore zuzenketarako laguntza:**  
Adriana L. García Zamudio (Anónima Post)

## MARKAREN KOKALEKUA: BESTELAKO IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPEN BATZUK

### HASIERAKO KREDITUAK

EQZEn markak obraren (garapen-fasean dauden muntaketak, saiakera filmikoak, trailerrak, teaserak...) hasieran agertu behar du, ondoan beste markarik gabe.

Pantailan bistaratu beharko du gutxienez lau segundoz, kolore lauko atzealde baten (zuria edo beltza) gainean.

Beste marka batzuekiko kokapen espezifikoak kasuz kasu adostuko den arren, oro har, EQZEn marka lehen posizioan agertuko da, elkarren segidan agertuko diren beste marka batzuk ere badaudenean.



## MARKAREN KOKALEKUA: BESTELAKO IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPEN BATZUK

### AMAIERAKO KREDITUAK

Amaierako kredituetan, ohar hau jaso beharko da: "Obra hau Elías Querejeta Zine Eskolan ekoitzi da". Aipamen hori eskolaren markarekin batera agertuko da, beste batzuk ere baldin badaude. Kasu horretan ere, EQZEren markak lehentasunezko posizioa izango du.

Ekoizpena materialki eskolako laborategi fotokimikoetan eta/edo postprodukzioko aretoan garatu bada, horren berri jaso beharko da kredituetan. Honela egin beharko da: Elías Querejeta Zine Eskolaren laborategiak.

Aipamen horren azpian, ekoizpenean parte hartu duten eskolako sail teknikoko arduradunek agertu beharko dute eta, ondoren, parte hartu duten ikasle eta/edo alumniak egin duten lana adieraziko da, identifikatzen direnean.

Esta producción ha sido desarrollada  
en Elías Querejeta Zine Eskola



Elías Querejeta Zine Eskola Laborategiak

**Aholkularitza teknikoa:**  
Asier Armental, Cris Neira

**Ikerketa:**  
Luis Alberto Juárez Pineda, Inés Toharia

**Irudiaren zaharberritze digitala:**  
Luis Alberto Juárez Pineda

**Irudi garbiketa digitalerako laguntza:**  
Jorge Jaramillo, Andrés Martínez de la Viña, Pablo Retuerta, Amanda Soares

**Kolore zuzenketa:**  
Edgar Flores Ogarrio, CSI, CAM (Anónima Post)

**Kolore zuzenketarako laguntza:**  
Adriana L. García Zamudio (Anónima Post)

## MARKAREN KOKALEKUA: ARGITALPENAK


EQZeren markak agertu behar du argitalpenaren lehen orrian, kredituen orrian eta kontraportadan; haren ondoan ez da bestelako markarik izango. Obraren tipologiaren, bolumenaren eta luzeraren arabera, marka azalean eta bizkarrean ere jarri ahal izango da.

Eskolaren markaz gainera, obraren kredituetan aipamen hau ere egin beharko da: "Argitalpen hau Elías Querejeta Zine Eskolan garatu da".

Beste erakunde batzuen markekin batera badago, EQZeren irudia lehenbizi agertuko da eta lehentasunezko posizioa izango du.



Lehen orrialdea (orrialde bakoitia)



Kredituak




Kontrazala

## MARKAREN KOKALEKUA: ZIKLOAK ETA PROGRAMAK

Zikloa edo programa identifikatzen duten euskarri guztietan (erakusketa-espazioetako pantailak, horma-irudiak, posterrak, teaserak, eskuko programak, postalak...) agertu beharko du EQZEn markak, bai eta haren seinaletikan ere.

Eskolaren markaz gainera, eskuko programak ohar hau ere jaso beharko du: "Ziklo/programa hau Elías Querejeta Zine Eskolan garatu da".

Beste erakunde batzuen markekin batera badago, EQZEn irudia lehenbizi agertuko da eta lehentasunezko posizioa izango du.



Horma-irudia



Eskuko programa (azala/kontrazala)

## MARKAREN KOKALEKUA: INSTALAZIOAK ETA ERAKUSKETAK

EQZEn markak agertu beharko du instalazioa edo erakusketa osatzen duten panel nagusi guztietan, bertaratuei ematen zaien materialean eta seinaleketan.

Eskolaren markaz gainera, eskuko programak ohar hau ere jaso beharko du: "Instalazio/erakusketa hau Elías Querejeta Zine Eskolan garatu da".

Beste erakunde batzuen markekin batera badago, EQZEn irudia lehenbizi agertuko da eta lehentasunezko posizioa izango du.

## TIERRA EN TRANCE COLECTIVO LOS INGRAVIDOS

Videoinstalación multicanal  
Formato: Digital (transfer de película de 16 mm)  
Duración: 38 minutos  
Música: Gustavo Nandayapa, Ramiro R. Duarte

Filmada con cámaras de 16mm *Tierra en Trance* implica una anarquía en movimiento, anarquía coronada del color, la luz, las formas, los ritmos, las cadencias, los encuadramientos y las superposiciones: siluetas, contornos, texturas, intermitencias, destellos, ráfagas, opacidades, oscuridades, danzas, volúmenes, entrañas, pulpas, fluidos, superficies, facetas y sincopas, todo ello a velocidades vertiginosas. Aquí conviven y coexisten múltiples entidades, objetos, pulsos, formas, colores, figuras, según un orden y ritmo audiovisual y cinético completamente alterado del teponaztlí, instrumento musical prehispánico. *Tierra en Trance* implica una modificación perceptiva singularizada.

Filmada y montada directa y estructuralmente en cámaras Bolex, incluso las superposición de diferentes capas de imagen y las cualidades y propiedades inherentes e iminentes, suscitan la visión polirrítmica en trance. La posibilidad de filmar en la cámara cuadro por cuadro permite integrar una constante modificación del encuadre en cada cuadro que compone un segundo de filmación: 24 modificaciones por segundo, 24 órdenes surgentes por segundo, 24 consagraciones por segundo, 24 intensidades diferenciadas por segundo, 24 volúmenes ópticos por segundo, pero también ráfagas intercalares de 12, 16, 18, 24, 32, 46 cuadros que permiten la invocación de un continuo audiovisual destellante: un cuerpo resonante. La materialidad y velocidad perceptiva del tipo de película (la sensibilidad y materialidad de la emulsión filmica) es también un elemento fundamental. Volúmenes de cuadro transformados y movilizatos fueron posibles gracias al uso de ópticas diferenciales de 10mm, 25mm, 75mm, 120mm, 400mm; la contracción y expansión del volumen secuencial de las cosas.

Finalmente la dimensión visual de *Tierra en Trance* se expande y vibra en una dimensión sonora percusiva. La composición e improvisación sonora realizada por el músico mexicano sobre la polirritmia lumínica consagra la intermitencia, el aleteo y el ritmo del teponaztlí, desde las brasas de la Tierra.

**Colectivo Los Ingrávidos** (Tehuacán, México) surge de la necesidad de desarticular la gramática audiovisual que el corporativismo estético-televisivo-cinematográfico ha utilizado y utiliza para garantizar de manera eficaz la difusión de una ideología audiovisual por medio de la cual se mantenga un continuo control social y perceptivo sobre la mayoría de la población. Sus métodos combinan material digital y analógico, *found footage*, mitologías, agitprop, protestas sociales y poesía documental.



Kanal anitzeko bideo instalazioa  
Formatua: Digitala (16 mm-ko filmeko transferentzia)  
Iraupena: 38 minutu  
Musika: Gustavo Nandayapa, Ramiro R. Duarte

*Tierra en Trance* 16mm-ko kamerekin filmatua dago, eta mugimendu-anarkia dakar berekin; kolorez, argiz, formaz, erritmoz, kadentziatz, kateamenduz eta gainjartzez osaturiko anarkia: siluetak, ingererakak, testurak, aldiakotasunak, distirak, argi-keinuak, opakutasunak, iluntasunak, dantzak, bolumenak, erriak, mamiak, jarlagiak, gainazalak, aldeak eta siriokak, eta gutxia, gainera, abiadura zorabigarria. Biokidetzat estuan dira hemen entitate, objektu, pultsu, forma, kolore eta figura askotarikoak, betiere teponaztlí, musika-instrumentu prehispanoak markatutako ordena eta erritmo ikus-entzunezko eta zinetiko guztiz aztoratu baten araberakoak. *Tierra en Trance* pertzepzio-aldaketa oso berezia eragiten du.

Zuzenean eta egituraz Bolex kameran filmatua eta muntatua; irudi-geruzak eta kameren berezko azugarri eta propietateek aukera ematen dute trantsizio ikusagaj polirrítmicoa sortzeko. Kamerak koadroz koadro filmatzeko ematen duen aukerari esker, etengabe aldatutako enkoadraketa txertatu ahal izan genuen filmazio-segundo bat osatzen duen koadro bakoitzean: 24 aldaketa segundoko, 24 ordena puztu segundoko, 24 kontsarakzio segundoko, 24 intensitate desberdin segundoko, 24 bolumen optiko segundoko, baina, aldi berean, 12, 16, 18, 24, 32 eta 46 koadroko argi-keinu tartekatutak, ikus-entzunezko lan distiratu etenbako baten inbokazioak: gorputz ozen durunditsu bat. Funtsezkoa da, halaber, film-motaren hautamete-abiadura eta materialtasuna (film-eremuaren sentikortasuna eta materialtasuna). 10 mm-ko, 25 mm-ko, 75 mm-ko, 120 mm-ko eta 400 mm-ko optika diferentzialak erabiltutako eta mugiarazitako bolumenak integratzea da helburua. Guzuzen bolumen sekuentziaren uzkurura eta hedapena.

Azkenik, *Tierra en Trance*ren alderdi bisuala zabaldu egiten da, eta dar-dar egiten du perkusioak zuzenduriko soinu-dimensio batean. Argi-polirrítmia buruzko soinu-konposizio inprobisatu batek teponaztlíaren aldiakotasuna, hegada eta erritmoa kontsaktatuko ditu. Serialismo zinetiko eta ikus-entzunezko Lurraren txingarretatik.

**Colectivo Los Ingrávidos** (Tehuacán, México) teletesta eta zinemako korporatibismo estetikoak erabili duen eta oraindik ere erabiltzen duen ikus-entzunezko gramatika desgaitzeko beharrak bultzatuz sortu zen: gramatika hori baliatzen du korporatibismo estetiko horrek ikus-entzunezko ideologia jakin bat zabaltzeko eta, haren bidez, herriaren gehiengoren pertzepzioa sozialki kontrolatzeko. Los Ingrávidos kolektiboaren metodoek material digitala eta analogikoa konbinatzen dute, bai eta *found footages*, mitologiak, agitpropa, protesta sozialak eta poesia dokumentalera ere.

Multichannel video installation  
Format: Digital (16mm film transfer)  
Duration: 38 minutes  
Music: Gustavo Nandayapa, Ramiro R. Duarte

Filmed with a 16mm camera *Tierra en Trance* is anarchy in motion, an anarchy crowned by color, light, shapes, rhythms, cadences, sequences, overlays: silhouettes, contours, textures, flashes, bursts, opacities, darkness, volumes, entrails, pulp, fluids, surfaces, facets, syncopations, all at dizzying speeds. Objects, shapes, colors, figures, all coexist according to a totally altered order, an audiovisual and kinetic rhythm of the teponaztlí, a prehispánico musical instrument. *Tierra en Trance* is a singularize perceptual modification.

Filmed and mounted directly in Bolex cameras, even the superposition of different image layers, the qualities and properties inherent to these allowed to elicit this rhythmic vision in trance. The possibility of filming frame by frame to integrate a constant modification of the framing in each frame that composes a second of filming: 24 modifications per second, 24 lurid orders per second, 24 consecrations per second, 24 differentiated intensities per second, 24 optical volumes per second, but also interleaved bursts of 12, 16, 18, 24, 32, 46 frames that allow the invocation of sparking audiovisual continuum: a resonant body. The materiality and perceptual speed of the type of film (the sensitivity and materiality of the film emulsion) is also an essential element. Transformed and mobilized frame volumes were possible by the use of differential lenses of 10mm, 25mm, 75mm, 120mm, 400mm; the contraction and expansion of the sequential volume of things.

Finally the visual dimension of *Tierra en Trance* expands and vibrates in a percussive sonorous dimension, a composition and musical improvisation performed by the mexican percussionist on this luminous writing that consecrates the fluttering and the rhythm of the teponaztlí, from the embers of the Earth.

**Colectivo Los Ingrávidos** (Tehuacán, México) arises from the need to dismantle the audiovisual grammar that the aesthetic-television-cinematic corporatism has used and uses to effectively guarantee the diffusion of an audiovisual ideology by means of which a continuous social and perceptivo control is maintained over the majority of the population. Their methods combine digital and analog material, *found footage*, mythology, agitprop, social and documentary poetry.

Esta instalación ha sido desarrollada en Elías Querejeta Zine Eskola



## MARKAREN KOKALEKUA: WEBGUNEAK ETA EUSKARRI DIGITALAK

EQZeren markak orri nagusian agertu beharko du, bai goiburuan (header), bai orri-oinean (footer).

Beste erakunde batzuen markekin batera badago, EQZeren irudia lehenbizi agertuko da eta lehentasunezko posizioa izango du.

Eskolaren markaz gainera, footerak ohar hau ere jaso beharko du: "Webgune hau Elías Querejeta Zine Eskolan garatu da".



Header



Footer

## MARKAREN KOKALEKUA: IKASLEEK ANTOLATUTAKO JARDUERAK

EQZEren markak agertu behar du ikasleek beren ekimenez zentroaren jardueren esparruan antolatzen dituzten jarduera-mota guztiak (emanaldiak, mintegiak, erakusketak, castingak...) identifikatzen dituzten euskarri guztietan.

Beste erakunde batzuen markekin batera badago, EQZEren irudia lehenbizi agertuko da eta lehentasunezko posizioa izango du.

Cine EQZE Zinema (Tabakalera)  
• Sarrera doan • Entrada libre

# ZINEMA GOXOA

Maiatza	25	Mayo
Ekaina	15	Junio
Iraila	14	Septiembre
Urria	19	Octubre
Azaroa	16	Noviembre
Abendua	14	Diciembre

Antolatzailea | Organizado por


EQ ELÍAS QUEREJETA ZINE ESKOLA

Tabakaleraren laguntzarekin | Con la colaboración de Tabakalera

Zinema Goxoa, ikasleek antolatutako zikloa

# MARKA NAGUSIA

MARKA NAGUSIA:  
KOLOREAK




**Negro**

CMYK: 0/0/0/100  
RGB: 0/0/0  
HTML: 000000

**Blanco**

CMYK: 0/0/0/0  
RGB: 255/255/255  
HTML: ffffff



**Pantone 877  
metallic**

CMYK: 0/0/0/40  
RGB: 138/141/143  
HTML: #8a8d8f

MARKA NAGUSIA:  
**HONDO ILUNA**



ELÍAS  
QUEREJETA  
ZINE  
ESKOLA




**MARKA NAGUSIA:  
KOLORE BAKARREKO BERTSIOA**

Mugitzen diren hondoen edo koloreen gaineko ikuspena bermatzeko, markaren kolore bakarreko bertsioa erabil daiteke –erabat zuria edo beltza–.



**MARKA NAGUSIA:  
KOLORE HONDOAK**

Bertsio bat edo bestea (positiboa edo negatiboa) erabiltzea markaren irakurgarritasun egokiaren mende egongo da.



**MARKA NAGUSIA:  
MARKA MURRIZTEA ETA  
EZARRITAKO GUTXIENEOAK**

Markak, erabili ahal izateko, zentimetro bat izan beharko du gutxienez garaieran, sinboloaren ertz bertikala erreferentziazat hartuta.

Zentimetro bat baino txikiagoa izanez gero, gomendagarria da kolore bakarreko bertsioa erabiltzea.

Euskarri digital txikietan, banner edo newsletteretan kasu, 70 px da irakurgarritasuna bermatzen duen gutxieneko tamaina, betiere marka osoaren altuera markatzen duen sinboloaren ertz bertikala erreferentziazat hartuta.

Proiektzio-pantailetan, bideo-hormetan, monitorrean eta abarretan, markaren tamaina pantaila bertikalaren 1/10 izango da gutxienez.


komunikabide inprimatuak



Komunikabide digitalak



Pantailen kasuan, markak pantailaren 1/10 izan beharko du altueran



MARKA NAGUSIA:  
**SEGURTASUN-EREMUA**

Segurtasun-eremuak markaren inguruan  
libre egon behar duen espazioari egiten dio  
erreferentzia. Beste elementu batek ere ezingo du  
gainditu muga hori, logotipoaren inbasio bisuala

saihesteko. Erreferentzia gisa, Gipuzkoako  
Foru Aldundiaren armariaren zabalaren eta  
altueraren pareko perimetro bat ezar dezakegu.



**MARKA NAGUSIA:  
ERABILERA OKERRAK**

Jarraian, marka manipulatzean edo erabiltzean gerta litezkeen aldaketa batzuk agertzen dira, guztiak okerrak. Erabilera ez normatiboak

saihesteko, komenigarria da beti zentroaren webgunean edo [esteka honetan](#) emandako fitxategi bektoriala erabiltzea.




Ez da ageri Gipuzkoako Foru Aldundiaren armarria



Marka osatu gabe dago edo haren elementuren bat falta da



Marka osatu gabe dago edo haren elementuren bat falta da



Sinboloaren erabilera bakarra



Alderdien arteko eskala aldatzea.



Marka biratuta edo iraulita ageri da, erabat edo osagairen batean



Distortsioak –bertikalak, horizontalak edo diagonalak–



Marka manipulatuta da

## MARKA NAGUSIA: PROIEKTUKO GAINERAKO ERAKUNDEEN MARKEKIN BATERA AGERTZEA

Batzuetan, EQZE markarekin batera, agertzen dira proiektua osatzen duten gainerako erakundeen markak ere.

Instituzio bakoitzeko logotipoen proportzioei eta kokapenari dagokionez, hauxe da marken multzoa aurkezteko modua:

Bada lehenetsitako ordena bat, logotipo horiek aurkezteko:

1. Elías Querejeta Zine Eskola
2. Euskadiko Filmategia
3. Donostia Zinemaldia
4. Tabakalera
5. EHU/UPV



Erakunde hauen parte-hartzearekin:



Erakunde hauen parte-hartzearekin:



**MARKA NAGUSIA:  
BESTE MARKA BATZUEKIN AGERTZEA**

Zentroaren markak beste batzuekin agertu behar badu, edozein motatakoak direla ere, EQZEren irudia agertuko da lehenik eta behin, eta lehenitasunezko lekua izango du, gainerakoetatik berezita.

Gainerako markak ez dituzte gaituzte, inola ere, EQZE markaren aplikazioaren altuera eta zabale-  
ra, eta ez dira nagusituko haren gainetik.



# MARKAREN PRESENTZIA TESTUETAN

## MARKAREN PRESENTZIA TESTUETAN

Zentroaren izen osoa Elías Querejeta Zine Eskola da, eta sigla, berriaz, EQZE. Izena idatziz agertzen den guztietan, osagai bat ere falta ez izateko moduan egingo da. Era berean, ez da onartzen izenaren itzulpena, ezta partziala ere. Horrenbestez, testu batean zentroaren izena aipatu behar denean, erreferentzia-forma zuzenetako bat erabiltzea komeni da, marka idatzia identifikatzen eta ezagutzen dela bermatzeko.

Arau gisa, zentroa aipatzen den lehen aldian osorik idatzi behar da izena: Elías Querejeta Zine Eskola. Hurrengo aipamenetan, nahikoa da EQZE siglak bakarrik baliatzea. Testu luzeetan, bi formulak txandakatu daitezke.

**Elías Querejeta Zine Eskola** zinemaren iraganaren, orainaren eta etorkizunaren inguruko pentsamendu, ikerketa, praktika esperimetal eta berrikuntza pedagogikoaren nazioarteko zentroa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak sortuta eta finantzatuta eta Euskal Herriko Unibertsitateari atxikita eratu zen **EQZE** 2017an, espirtu grinatsu eta birsortzailearekin: haren azken helburua ez da koadro teknikoak osatzea, prestakuntza-eredu tradizional eta estandarizatuei jarraituz, baizik eta zinegileen sorrera suspertzea, zinemaren ikuspegi integralarekin eta errealitate zinematografiko berriak (lanekoak, kontzeptualak, sortzaileak, profesionalak) sortzeko gai diren zinemagileen agerpena suspertzea.

## MARKAREN PRESENTZIA TESTUETAN: ERABILERA OKERREN ADIBIDEAK

**EQZE** zinemaren iraganaren, orainaren eta etorkizunaren inguruko pentsamendu, ikerketa, praktika esperimental eta berrikuntza pedagogikoaren nazioarteko zentroa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak sortuta eta finantzatuta eta Euskal Herriko Unibertsitateari atxikita eratu zen **Elias Kerejeta Zinema Eskola** 2017an, espiritu grinatsu eta birsortzailearekin: haren azken helburua ez da koadro teknikoak osatzea, prestakuntza-eredu tradizional eta estandarizatuei jarraituz, baizik eta zinegileen sorrera suspertzea, zinemaren ikuspegi integralarekin eta errealitate zinematografiko berriak (lanekoak, kontzeptualak, sortzaileak, profesionalak) sortzeko gai diren zinemagileen agerpena suspertzea.

**Zine Eskola** zinemaren iraganaren, orainaren eta etorkizunaren inguruko pentsamendu, ikerketa, praktika esperimental eta berrikuntza pedagogikoaren nazioarteko zentroa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak sortuta eta finantzatuta eta Euskal Herriko Unibertsitateari atxikita eratu zen **Elías Querejeta zinemagintza-ikastegia** 2017an, espiritu grinatsu eta birsortzailearekin: haren azken helburua ez da koadro teknikoak osatzea, prestakuntza-eredu tradizional eta estandarizatuei jarraituz, baizik eta zinegileen sorrera suspertzea, zinemaren ikuspegi integralarekin eta errealitate zinematografiko berriak (lanekoak, kontzeptualak, sortzaileak, profesionalak) sortzeko gai diren zinemagileen agerpena suspertzea.

## MARKAREN PRESENTZIA TESTUETAN HIZKUNTZA-POLITIKA

Elías Querejeta Zine Eskolaren (EQZE) komunikazio-estrategiak eta -ekintzak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egiten dira, haiek baitira zentroak erabiltzen dituen hizkuntzak. Offlineko eremuan (publizitatea, prentsa, seinaletika) eta onlineko eremuan (webgunea, aplikazioak, sare sozialak) erabiltzen dira hizkuntza horiek.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean ezarritako irizpideen arabera, euskarak lehentasunezko hizkuntza izan behar du komunikazio ekintza guztietan, bai barnekoetan, bai kanpokoetan. Politika hori aplikatu behar da, halaber, publikoaren arretan (aurrez aurre denean, bai eta bestelakoetan ere) eta deialdi publikoetan; adibidez, ikasleak onartzeko prozesuetan. Arau hori ikasleek eskolako ikasketen esparruan garatutako ekimen publikoetara ere hedatzen da.

Euskarak lehentasuna izango du gaztelaniaren aldean, bi hizkuntzak batera daudenean. Beste egoera batzuetan, testuen hizkuntza/k hautatzeko, kontuan hartuko da zer testuingurutan erreproduzituko diren.

Eskolak ez duen arren programazio publiko erregularrik, EQZEK, antolatu dituen jardueretan, aldi bereko itzulpen-zerbitzua eman du, hizkuntza nagusia ez denean euskara izan. Irizpide horiei jarraituz, argitalpenak, liburuxkak, liburuak eta gainerako material inprimatuak gutxienez bi hizkuntzatan (euskara eta gaztelania) ekoitzi dira, eta euskara izan da hizkuntza nagusia euskarri horien hizkuntza-hierarkian. Hala, EQZEK modu proaktiboan bultzatzen du euskararen erabileraren normalizazioa Euskal Herriko zinematografiaren sektorean; gainera, eskolaren beraren berezitasun kulturalari eta hezigarriari ere laguntzen dio horrek aldi berean.

## MARKAREN PRESENTZIA TESTUETAN HIZKERA INKLUSIBOAREKIKO KONPROMISOA

Elías Querejeta Zine Eskolak (EQZE) konpromiso aktiboa hartzen du hizkera eta irudi inklusiboak bultzatzeko, bai idatzizko komunikazioan, bai ahozkoan. Eskolaren helburu nagusia da estereotipoak, alborapenak eta edonolako diskriminazioak saihestea eta desagerraraztea. Modu horretan, EQZEko komunitatea osatzen duten pertsonen dibertsitatea babesteaz gainera, haien berdintasuna babesten eta bultzatzen du. EQZEren helburua da hizkerak eta irudiak gizarte-egituran duten inpaktuaren inguruan kontzientziatzen laguntzea bere jarduketa-eremutik.

Zentroaren funtsezko balioekiko koherentzia mantenduz, EQZEkin parte hartzen duen proiektu orok bermatu beharko du berdintasuna, dibertsitatea eta inklusioa bultzatu, aitortu eta babestuko dituen hizkera zehatz bat. Testuinguru horretan, erreferentzia nagusia da [Euskararen erabilera inklusiboa](#) (2018), Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) argitaratua .

Nortasun korporatiboaren eskuliburua  
(azaroaren 2025eko bertsioa)



Erakunde hauen parte-hartzearekin:



**SSIFF**

Donostia Zinemaldia  
Festival de San Sebastián  
International Film Festival

